



# POBLAUGHT NA H EIREANN

## EN ALDARRIKAPENA

### IRLANDAR ERREPUBLIKAREN BEHIN BEHINEKO GOBERNUA IRLANDAKO HERRIARI

**IRLANDARROK:** Irlanda bere naziotasuna eta aintzineko tradizioa jaso zuen Jaungoikoaren eta hildako belaunaldien izenean, gure bidez, bere banderapean bere semealabak deitzen ditu eta bere askatasunaren alde matxinatzen da.

Bere erakunde iraultzaile sekretuaren, Anaitasun Errepublikar Irlandarra, eta bere erakunde militar publikoen bidez, Irlandar Bolondresak eta Hiritar Irlandarren Armada, bere gizonak antolatu eta trebatu ondoren, bere disziplina pazientziaz bikaindu ondoren, matxinatzeko unea tinko itxaron ondoren, une hau atzematen du, eta, Ipar Amerikan erbesteratutako semealabeek eta Europako lagun ausartek sustengaturik, baina lehenbizi bere indarretan sinetsita, garaipenaren konfidantza osoz, kolpatzen du.

Irlandar herriaren Irlanda gaineko jabetzaren eskubidea eta irlandar patuen baldintzarik gabeko kontrolaren eskubidea subirano eta atzerazinekoa dela diogu. Herri eta gobernu atzerritar batek luzaroan eskubide horren lapurketa egiteak ez du eskubide hori desagerrarazi eta ezin du desagerrarazi ez bada irlandar herriaren suntsipenarengatik. Belaunaldi bakoitzean irlandar herriak bere askatasun eta nazio subirautza aldarrikatu du: azken hirurehun urteetan armen bidez sei aldiz aldarrikatu du.

Funtsezko eskubide horretan oinarriturik, eta beste behin ere armen bidez baieztatuz, munduaren aurrean, hemen Irlandar Errepublika Estatu Independente Subirano bezala aldarrikatzen dugu, eta gure bizitzak eta gure burkideen bizitzak bere askatasuna, bere ongizatea eta nazioen artean bere gozarrearen alde konprometitzen ditugu.

Irlandar Errepublikak gizon eta emakume irlandar bakoitzaren atxikimenduaren eskubidea du eta hemen aldarrikatzen du. Errepublikak erlijio askatasuna eta askatasun zibila babesten ditu eta baita ere hiritar guztien eskubide eta aukeren berdintasuna eta nazio osoaren eta bere zation zorientasuna eta oparoaldiaren alde bere erabakitasuna aldarrikatzen du nazioaren semealaba guztiak berdintasunez preziatuz eta gobernu atzerritar batek zuhurki sortutako banaketa inoratuz zeinak iraganean gutxiengo bat gehiengoarengandik banatu duen.

Gure armek Irlanda osoaren ordezkaria den eta gizon eta emakumeen bozkek aukeratutakoa den Nazio Gobernu iraunkorra ezartzeko une egokia ekartzen duten arte, behin-behineko Gobernu, hemen osatua, herriaren alde zintzotasunez Errepublikaren afera zibil eta militarra kudeatuko ditu.

Irlandar Errepublikaren zioa Jaungoikoaren babesarenpean jartzen dugu, eta gure armen bedeinkapena eskatzen diogu, eta zio honen alde dagoen inork koldarkeriaz, giza gabetasunez edo ankerkeriaz ez duela desohoratuko erregutzen dugu. Une goren honetan, Irlandar nazioak, bere ausardiaz eta disciplinaz eta guztien ongizatearen alde sakrifikatzen bere semealabeen prestutasunaz, erakutsi behar dio bere buruari merezi duela zai daukan ohorezko patua.

Behin-behineko Gobernuaren izenean sinatuta.

THOMAS J. CLARKE,

SEAN Mac DIARMADA,

THOMAS MacDONAGH,

P. H. PEARSE,

EAMONN CEANNT,

JAMES CONNOLLY.

JOSEPH PLUNKETT.

